LAZKAOKO
UDALA

2020KO OTSAILAREN 3KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeiko otsailaren hiruan, arratsaldeko seietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2020ko urtarrilaren 13an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2019ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 118 zbk.dun fakturen zerrenda, BERROGEITA HIRU MILA LAUEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (43.419,47 €)takoa eta 2020ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedienteetan daudenak, BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA HOGEI EURO ETA BERROGEITA HAMALAU ZENTIMO (9.320,54 €)takoa onartzea erabakitzen da.

LAZKAOKO
UDALA

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 19-11-20 zbk.dun esped.: 2019ko abenduaren 12an baja ematea, onuraduna hala eskatu duelako.

- 19-11-21 zbk.dun esped.: 2019ko abenduaren 14an zerbitzuan alta eta abenduaren 23an baja ematea heriotzagatik. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 da.

- 17-11-01 zbk.dun esped.: 2019ko abenduaren 31n baja ematea, heriotzagatik.

- 20-11-01 zbk.dun esped.: Urtarrilaren 2tik aurrera alta ematea astelehenetik ostiralera egunero 2 ordu laguntza pertsonala eta etxerako laguntza eskeintzeko. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.

- 19-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzua murriztea urtarrilaren 14tik aurrera, astean 10 ordutik 4 ordura, onuradunaren osasun egoerak hobera egin duelako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 700 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 82,32 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 89% da.

- 09-01-018 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 59,2 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 64% da.

- 14-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.

- 14-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.

- 15-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.

- 17-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 81,4 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 88% da.

- 18-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 46,25 €ko diru laguntza ematea urtarriletik otsailera eta alokairu gastuetarako hilean 125 €ko diru laguntza ematea urtarriletik otsailera. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.

- 18-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.

- 18-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.

- 18-01-010 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik martxora eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntza ematea urtarriletik martxora. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.

- 18-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,5 €ko diru laguntza ematea urtarriletik ekainera eta alokairu gastuetarako hilean 250 €ko diru laguntza ematea urtarriletik ekainera. Emandakoa eskatutakoaren %100 da

Ifarra-Hegoa lankidetza programa.-

2019ko Ifarra-Hegoa lankidetza programari dagokion aurrekontu partidatik, Nwina Mozambique proiektuagatik, Indarra, Dole, Kallpa nazioarteko elkarlanerako emakumeen elkarteari 300 €ko diru laguntza ematea.

Gazte laguntzaileentzat bekak.-

LAZKAOKO
UDALA

2020 urteari dagokion gazte laguntzaileentzat bekaren deialdia egitea.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziak aurkeztutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartu du:

Gerriko S.L..-

2019ko abenduaren 13, 14 eta 15ean Gerriko S.L.k antolatutako XXXI. Liburu eta Disko Azokarengatik 1987,83 €ko diru laguntza ematea.

V.- EUSKARA ETA HEZKUNTZAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara eta Hezkuntzako zinegotziak aurkeztutako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hau hartu du:

2019an autoa eta motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik diru laguntza.-

Autoa eta motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik lagun bakoitzari 100 €ko diru laguntza ematea, eta 18 lagun izanik, bere espedientean zerrendatzen diren datuen arabera, guztira 1.800 € dira.

San Benito Ikastola.-

2019 ekitaldiko diru laguntzaren bigarren zatia ematea; jardueretarako 11.500,00 € eta mantentze gastuetarako 17.000,00 € ematea.

VI.- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIEN ONARPENA.-

Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daudenak berritu eta modernizatzeko diru laguntzak emateko oinarriak 2016ko irailaren 23an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean onartu ziren. Orain oinarri horien hainbat egokitzapen egin dira eta hori horrela, Jarduera Ekonomikoaren Batzordeak diru laguntza hauek arautuko dituen oinarri berriak, eta 2020ko ekitaldirako deialdia onartzea proposatzen du.

LAZKAOKO UDALA

Hau guztia horrela, gaia bozketan jartzen da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

1.- Lazkaon merkataritza eta ostalaritza jarduera berriak sustatzeko eta irekita daudenak berritu eta modernizatzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak eta 2020ko deialdia, bere espedientean daudenak, hasierako izaeraz onartzea.

2.- Onarpen hau jendaurrean jartzea 30 eguneko denboraldian.

3.- Jendaurreko erakustaldi epean inolako iradokizun edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betikotzat hartutakoa joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

VII.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK.-

Jarduera ekonomikoko batzordeak, Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako gabonetan antolatutako erakusleiho lehiaketaren barnean, eta partehartzaileen artean zozketatutako opari-bonoen erabileraren ondoren eta bono hauek jaso dituzten merkatariek udalera ekarri ondoren, bono hauen zenbatekoen ordainketa egitea proposatzen da, ondorengo xehetasunaren arabera:

Merkataria	Zenbatekoa
Arantxa Fernandez Gonzalo (Gazi Gozo)	235 €
Ainhoa Gurrutxaga Auzmendi	50 €
Nekane Garmendia Mujika (Garaiz jantzi denda)	155 €
Gerriko S.L. (Gerriko liburudenda)	70 €
Garazi Zufiria Insausti (Arriaran mertzeria)	75 €
Maria Milagros Martinez Lopez de Dicastillo (Digitalizar)	10 €
Igone Aramendi Amenabar (Xanu)	210 €
Ainitze Korta Mendizabal (Miszelania)	10 €
Garin okindegia	50 €
Ana Kristina Olano Cerdá	30 €

Tokiko Gobernu Batzarrak, proposatutako diru laguntzak ematea onartu egin du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zazpiak hogei gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO UDALA